

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2023ko ABUZTUAREN 3an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO EZ OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2023ko abuztuaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, goizeko 10:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain
Ander Iturri Torrea
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Jose Agustin Arrieta Eguiguren
Maria Isabel Vaquero Montero

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Vicente Garcia Momblona

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...


Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Larraulgo hiri antolamenduko Plan orokorra eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari buruzko dokumentuak idazteko espedientea, baldintza administratibo partikularraren agiria eta baldintza teknikoak onestea, prozedura ireki eta tramitazio arrunten bidez egingo dena/ Aprobar el expediente de redacción del Plan General de Ordenación Urbana de Larraul y los documentos relativos al procedimiento de evaluación ambiental estratégica, el pliego de cláusulas administrativas particulares y las condiciones técnicas, que se someterán por procedimiento abierto y tramitación ordinaria .**
- 2. 3/2023 zenbakidun kreditu aldaketaren onspena (konpromiso kredituak)/ Aprobación de la modificación de crédito nº 3/2023 (créditos de compromiso).**

..//...

LEHENENGO PUNTUA

**LARRAULGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA ETA INGURUMEN
EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN PROZEDURARI BURUZKO
DOKUMENTUAK IDAZTEKO ESPEDIENTEA, BALDINTZA
ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAREN AGIRIA ETA BALDINTZA**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

TEKNIKOAK ONESTEA, PROZEDURA IREKI ETA TRAMITAZIO ARRUNTEN BIDEZ EGINGO DENA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen du zerbitzuen administrazio-kontratu bat tramitatzea udalerrri honetako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko jarduketak burutzeko.

Udal Zerbitzu Teknikoen txostena aztertu da. Bertan, proiektuaren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dira, eta lizitazioa arautuko duten Baldintza Teknikoen Pleguak egiten dira.

Kontuan hartuta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 308. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa.

Ikusirik 642.151.00.01 aurrekontu-aplikazioaren kargura 40.000,00 euroko kreditu-atxikipena 2023ko ekitaldian dagoela, eta "konpromiso-kredituak" kreditua aldatzeko espedientea, izapidetu beharreko zerbitzu-kontratuaren balio zenbatetsia dakarrena.

Udal honetako Idazkaritzak emandako txosten juridikoa aztertu da.

Kontratu hori arautuko duten administrazio-klausula partikularren agiriak onartu dira Ander Iturri zinegotziak prestatuak eta Maribel Vaquero zinegotziak eginiko puntualizazioa barruan sarturik.


Udal honetako Kontuhartzaitzak egindako fiskalizazioa aztertu da.

Ikusirik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Osoko Bilkura dela kontratazio-organo eskuduna.

Esandakoaren arabera, indarrean dagoen legeriak ematen dituen eskumenak erabiliz eta, zehazki, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian (SPKL 2017) xedatutakoaren arabera, udalbatzak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- Larraulgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren idazketako zerbitzuen kontratazio espedientea onartzea. Kontratuaren balio estimatuari 150.000,00 euro dira, eta Balio Erantsiaren gaineko



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Zergari dagozkion 31.500,00 euro ordaindu beharko dira, prozedura irekiaren modalitatean.

BIGARRENA.- Onestea 181.500,00 euroko gastua, indarrean dagoen 2023ko ekitaldirako Larraulgo Udalaren gastuen aurrekontuko 642.151.00.01 aurrekontu-aplikazioaren kargura, eta 2024, 2025 eta 2026 ekitaldietarako gastu-konpromisoak.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu-kontratu hau prozedura irekiaren bidez kontratatzeko baldintza administratibo berezien eta baldintza tekniko partikularren pleguak onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleitzeko prozedurari hasiera ematea, dagokion iragarkia Udal honetako kontratatzailearen profileen argitaratzeko agindua emanaz, hamabost eguneko epean egoki iritzitako proposamenak aurkez daitezzen.

BIGARRENGO PUNTUA

3/2023 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA (KONPROMISO KREDITUAK)

Ikusita Larraulgo hiri antolamenduko Plan orokorra idazteko lizitazioa onartu dela.

Ikusita, Plan orokorra idazteko gastua urte desberdinetan gauzatuko dela, ezinbestekoa da dagokion konpromiso kredituak onartzea.

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea egin dela, konpromiso-kredituen modalitatean 2023/3.

Kontu-hartzaileak emandako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat dator aplikagarria zaion legearekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, konkretuki 22 artikuluetan ezarritakoarekin.


ZUZENBIDE OINARRIAK:

-21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

-7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena.

Horregatik guztiagatik, udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Hasiera batez onartzea udal aurrekontuko konpromiso kredituen 2023/3 aldaketa espedientea.

KONPROMISO KREDITUAK: 2023/3

Partida	Azalpena	2023	2024	2025	2026
642.151.00.01	Plan orokorraren idazketa	37.500	48.000	48.000	48.000
GUZTIRA		37.500	48.000	48.000	48.000

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea hamabost laneguneko epean, behin iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web orrian argitaratuta.

HIRUGARRENA: Aurrekontua Konpromiso bidez aldatzeko 2023/3 espedienteak aldaketaren inguruko erabakia behin betikoa izango da, eta beraz ez du erabaki berririk beharko, baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren, ez bada erreklamaziorik aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, goizeko 10:55 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.